



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2016KO URRIAREN 28AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Jesus Peñagarikano Labaka**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**

Etorri diren zinegotziak:

Victoria Rodriguez Feloaga

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko urriaren 28an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta Bitarteko Idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2016KO URRIAREN 14KO AKTAREN ONARPENA**

2016ko urriaren 14an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

BAKARRA: Onartzea 2016ko urriaren 14an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.- 2016 URRIAK 19AN BURUTURIKO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENEN ONARPENA**

#### **2.1 2016KO LAN-ESKAINNTZA.**

2016ko martxoaren 17an udalbatzak onartu zuen Eusko Jaurlaritzari baimena eskatzea Udaltzaingoa sortzeko.

2016ko maiatzaren 26an jaso zen Eusko Jaurlaritzaren erantzuna. Eusko Jaurlaritzak 2016ko apirilaren 26an egindako Gobernu Kontseiluan onartu zuen Ibarra Udaltzaingoaen sorrera.

Udalbatzak 2016ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran onartu zuen 4 udaltzain lanpostu sortzea: hiru agente lanpostu eta lehen agente lanpostu bat 2016ko Plantilla Organikoan eta Lanpostuen zerrendan.

Baita ere kentzea aguazila lanpostua 2016ko Plantilla Organikoan eta Lanpostuen zerrendan.

Udal plantillan aldi berean ezin dira izan aguazila plaza eta udaltzaingoa, beraz aguazila plaza kendu egingo da udal plantilla organikoatik, gaur egun aguazila plaza betetzen duen funtzionarioak barne promozio baten ostean, agente plaza bat betetakoan.

Bestalde, Lorezaina lanpostua hutsik geratu zen 2016ko uztailaren 1ean, lanpostu hau betetzen zuen funtzionarioa, José M<sup>a</sup> Iribar Zampirain, Brigadako arduradun lanpostuarako izendatua izan zelako.

Kontuan izanda Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, 21.1.g) eta 91 artikuluetan dioena eta baita Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 128 artikuluan eta jarraitukoetan dioena.

Kontuan izanda Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege dekretuak onartua

2016ko urriak 19an buruturiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Onartzea 2016ko Enplegu Publikoaren Lan-eskaintza.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

BIGARRENA: 2016ko lan eskaintza publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea eta horren laburpena euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Txanda	kopurua	taldea	Izena	Eskala	Azpieskala	Hizkuntz eskakizuna
Librea	1	C2 (**)	Lehen Agentea	AB	Zerbitzu bereziak	3 derrigortua
Librea	2 (*)	C2 (**)	Agentea	AB	Zerbitzu bereziak	2 derrigortua
Barne sustapena	1	C2 (**)	Agentea	AB	Zerbitzu bereziak	2 derrigortua
Librea	1	C2	Lorezaina	AB	Zerbitzu bereziak	2 derrigortua

(\*) Barne sustapena bidez betetzeko deitutako plazak enplegu eskaintza publikoa handituko luke bete gabe gelditzen bada.

(\*\*) C2 (C1 jabetzan lanpostua hartu ondoren eta Euskadiko Polizia Legearen 118.2 artikuluan xedatutakoaren efektuetarako).

## **2.2 UDALTZAIN BI AGENTE LANPOSTU LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO OINARRIEN ONARPENA**

2016ko martxoaren 17an udalbatzak onartu zuen Eusko Jaurlaritzari baimena eskatzea Udaltzaingoa sortzeko.

2016ko maiatzaren 26an jaso zen Eusko Jaurlaritzaren erantzuna. Eusko Jaurlaritzak 2016ko apirilaren 26an egindako Gobernu Kontseiluan onartu zuen Ibarra Udaltzaingoa sorrera.

Udalbatzak 2016ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran onartu zuen 4 udaltzain lanpostu sortzea: hiru agente lanpostu eta lehen agente lanpostu bat 2016ko Plantilla Organikoan eta Lanpostuen zerrendan.

Bi agente lanpostu lehiaketa-oposizio bidez betetzeko oinarriak aztertzen dira.

2016ko urriak 19an buruturiko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Onartzea bi agente lanpostu lehiaketa-oposizio bidez betetzeko oinarriak. (I eranskina).

BIGARRENA: Deialdi hau eta bere oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## I.-ERANSKINA

### UDALTZAINGOKO BI UDALTZAIN-PLAZA JABETZAZ BETETZEKO TXANDA IREKIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOKO OINARRIAK

Lehena.- Deialdiaren helburua.

Deialdi honen bidez, Udal honetako lanpostu-zerrendan hutsik dauden jabetzako Udaltzain bost lanpostu hornitu nahi dira txanda irekiko lehiaketa-oposizio bidez. Bi plaza hauek, Administrazio Bereziko Eskalako, Zerbitzu Berezietako azpi-eskalakoak dira; Mota, Udaltzaingoa eta bere laguntzaileak; eta Taldea, C2.

Bigarrena.- Lanpostuaren ezaugarriak

Deialdiko plaza hauek 2. hizkuntza eskakizuna daukate ezarrita, derigortasun data mugaeguneratua.

Ordainsaria 17 maila osagarriari dagokiona izango da, eta berariazko osagarria 775 puntu.

Lanaldia: Udalbatzak urtero jartzen duena; edonola ere, lanpostuaren izaera eta beharizan espezifikoari erantzun die.

Hirugarrena.- Betebeharrak.

Onartua izateko eta oposizio-lehiaketan parte hartzeko honako baldintzok bete beharko dira:

a) Espainiar nazionalitatea izatea.

b) Agente-mailan sarrera izateko, 18 urte beteak behar dira baina 35 bete gabe. Alabaina, Udaltzaingoa sartzeko, goiko adin muga, udaltzain lanetan Herri-administrazioan eskainitako zerbitzuekin konpentsatu ahal izango da.

c) Gizonezkoek gutxienez ere 1,65 m neurtzea eta emakumezkoek, 1,60 m.

d) Eskola graduatua, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea den titulazio akademiko ofiziala edukitzea edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

e) Lanpostuari dagokion euskarako 2. hizkuntza eskakizunaren jabe izatea. Hizkuntza eskakizun hori HAEK emandako agiri ofizialaren bidez edo horren baliokidez egiaztatuta ez dutenek, hautaketa probetan bertan horretarako deituko diren azterketetan egiaztatu beharko dute.

f) B motako ibilgailuak gidatzeko gidabaimena Gida baimen horiek praktikaldia amaitu aurretik egiaztatu beharko dira.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

g) Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Polizia hautatu eta prestatzeko Araudia onetsi zuen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren eranskinean azaltzen diren medikuntza-arloko arrazoi baztertzaileren koadroan sartuta ez egotea. Dekretu hori otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuak aldatu du. Betebehar hau bere garaian egiaztatu beharko da; epaimahaiak proposatutako izangaiari horretarako beharrezko diren probak eta azterketak egingo zaizkio Udalak hartarako zehaztutako mediku zerbitzuen bidez.

h) Maltzurkeriazko delituagatik zigorrak jaso ez izana, herri-administrazioko zerbitzutik kendutakoa ez izatea, eta herri-jarduerarako ezgaitua ez egotea. Hala ere, zigor bidezko eta administrazioko arauen arabera, birgaiketa-eskubidea aplikatu ahal izango da; beti ere, birgaiketa hori agiri ofizialen bidez egiaztatzen badu izangaiak.

i) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko poliziaren bateko kide izateko hautaketa-prozesuren batetik baztertua ez izana, arau-hauste larri edo oso larri bat egiteagatik, kasu honetan izan ezik: Arau haustearen preskripzio epearen baliokidea den epe bat igaro izana, bazterketa deklarazioa egin zen egunetik aurrera kontatuta.

j) Ez egotea legeak jasotako inolako ezgaitasun edo bateraezintasun kasuetan, 53/1984 legeak, herri administrazioetako zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzkoak aurreikusitakoaren arabera.

Oinarri hauetan aipatutako betebehar guztiak, e) eta f) izan ezik, eskaerak aurkezteko azken egunean bete beharko dira eta Udaleko karreradun funtzionarioa izendatzen dena arte mantendu beharko dira.

Hirugarrena.- Zereginak

Lanpostuaren zereginak une bakoitzean ezarritakoak izango dira eta bereziki honako hauek:

1. UDALEKO AGINTARIAK ETA ONDASUNAK BABESTEA:

- a. Beharrezkoa denean udaleko agintariak babestea.
- b. Udalaren eraikinak eta instalazioak eta udalerraren azpiegitura zaintzea.
- c. Ezarritako prozedurari jarraituz, bide publikoetan eta udalerraren ondarea osatzen duten leku eta ondasun guztietan (bide-seinaleak, espaloiak, kutxatilik, kale-argiak...) gertatutako irregulartasunen berri ematea. Egokia bada, arduraduna jakinaren gainean jartzea, irregulartasuna bideratzeko.

2. HIRITARREN SEGURTASUNA ETA BABES ZIBILA:

- a. Hiritarren segurtasuna, eskubide eta askatasun publikoak, eta pertsonen eta ondasunen babesa bermatzea udalerrian.
- b. Biztanleriaren arreta zerbitzuak barne hartzen dituen lan guztiak egitea: Informazioa ematea, kontsultei erantzutea, kexak eta salaketak jasotzea.
- c. Biztanleei era askotako egoera zailetan edo arazoetan laguntzea, baita udalaren eskumenetik kanpo egonagatik tradizioz egiten direnetan ere: Gatazka pribatuak adiskidetasunez konpontzen.
- d. Udalerrian zainketa eta patruila-lanak egitea eta bitarte horretan gertatutako gorabeherak konpontzea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- e. Biztanleei istripuetan, hondamendietan eta zorigaitz publikoetan laguntzea, babeslanak legeetan aurreikusitako moduan gauzatuz, asistentzia publikorako eta babes zibilerako erakunde eta organismoekin elkarlanean
- f. Erantzun, atestatua egin, eta beharrezkoa bada tratu txarrak jasan dituen emakumea lekuz aldatu ezarritako harrera pisuetara, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako sailak ezarritako neurriak jarraituz.

**3. MUGIKORTASUNA ETA BIDE-SEGURTASUNA:**

- a. Trafikoa zaintzea eta ordenatzea, zirkulazioa eta ibilgailuak non uzten diren kontrolatuz Udal ordenantzaren arabera.
- b. Trafiko araua-haustea zaindu eta salatzea, eta trafiko arazoak ekiditeko beharrezko kudeaketak egitea.
- c. Trafiko araua-haustea zaindu eta salatzea, eta trafiko arazoak ekiditeko beharrezko kudeaketak egitea.
- d. Nagusiak horrela eskatzen dionean TAOko makineb garbiketa egitea.
- e. Obrak, ofizialki antolatutako ekitaldiak edota ikuskizun publikoak (jaiak, kultura eta kirol-jarduerak) direla-eta egin beharreko trafiko-mozketak antolatu eta kontrolatzea.
- f. Istripu eta ezbeharretan kontu hartzea (zaurituei laguntzea, zirkulazioa berriro martxan jartzea, atestatuak ongi egitea, trafiko-istripuei buruzko ikerketak eta txostenak egitea).

**4. POLIZIA ADMINISTRATIBO ETA JUDIZIALA:**

- a. Udal-ordenantzak, erregelamenduak eta hitzarmenak betearaztea (azoka eta salmenta ibiltaria, tabernen ixteko ordua eta zarata, hondakin kontrolatu gabea, animaliei buruzko araudia, lizentzien kontrola). Egokia bada, beroriek betetzen direla kontrolatu eta salatu.
- b. Ikuskapen eta salaketa-jardueren bidez, hirigintza-diziplina eta udalerriko eraikinen, obren eta instalazioen segurtasun eta osasungarritasun-baldintzak betearaztea, eta kasuan kasuko arduraduna jakinaren gainean jartzea.
- c. Ikerketa-lanak egitea, beste instantzia batzuetan eskatutakoari jarraituz edo poliziak egindako salaketek eta ekintzek eraginda.
- d. Hauteskunde garaian hauteskunde-mahaietako kideei jakinarazpenak helarazteaz arduratzea.
- e. Nagusiek horrela eskatutakoan, hauteskunde egunean udal idazkariari laguntzea (hauteskunde-mahaiak dauden lokala irekitzea, hala eskatuz gero, hauteskunde-mahaia osatzeko garaian aurkeztu ez den hautatutako kidea bere etxera bila joatea...). Hauteskunde prozesuetan herritarrak hauteslekuetara sartzeko askatasuna bermatzea, eta bozketen garapen arrunta eragotzi edo aztoratu ditzaketen gertakariak saihestea.
- f. Biztanleei istripuetan, hondamendietan eta zorigaitz publikoetan laguntzea, babesplanak legeetan aurreikusitako moduan gauzatuz, asistentzia publikorako eta babes zibilerako erakunde eta organismoekin elkarlanean.
- g. Espazio publikoak zaintzea eta manifestazioen babesean eta jende andana handiko kontzentrazioetan ordena mantentzen laguntzea, horrela eskatzen zaionean.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- h. Prebentzio izapideak eta delitu-egintzak ekidingo dituzten beharrezko jarduketak egitea.
  - i. Agindutakoan, jakinarazpenak eta horietatik eratorritako kudeaketak bideratzen laguntzea.
5. **BESTE EGINKIZUN BATZUK:**
- a. Biztanleriaren arreta zerbitzuak barne hartzen dituen lan guztiak egitea: Informazioa ematea, kontsultei erantzutea, kexak eta salaketak jasotzea.
  - b. Bere jarduerarekin lotutako espedienteak eta administrazio-kontuak egiten, bideratzen eta kudeatzen parte hartzea, kasu bakoitzean zehaztutako ildoan, prozeduren eta ereduaren arabera: Eguneroko parteak, kexak, salaketak, istripuak...
  - c. Zerbitzuari logistika- eta administrazio-laguntza ematea: Dokumentuak fotokopiatzea, korrespondentzia bildu eta bidaltzea, efektiboak irratiz eta telefonoz lokalizatzea, faxa arloko artxiboa eguneratzea eta antolatzea.
  - d. Etxe-abereen bilketaz arduratzea, jabea bilatuz edo Animaliak babesteko elkartera lekualdatzea kudeatuz.
6. **GUZTIEN ARDURAK**
- a. Lanpostuari dagokion eginkizunari buruzko gaietan herritarrei erantzutea, informatzea eta orientabideak proposatzea.
  - b. Eskatutako txosten edo agiriak betetzea, eta behin bere eguneko lana amaitutakoan bere nagusiei ematea.
  - c. Sailera egotzitako gainerako langileekin lan-pilaketa, absentzia eta gaixotasun egoeretan laguntzea.
  - d. Bere esperientziarengatik edo ezagutzagatik menperatzen dituen lan gaietan bere lankideak aholkatzea eta laguntzea.
  - e. Horrela eskatutakoan, agente politikoeekin bilerak egitea edo batzorde informatiboetara joatea.
  - f. Azaldutakoez gain, bere gaitasunekin eta ahalmenekin bat datozen beste zeregin batzuk egitea. Zeregin horiek helburu batzuk lortzeko edo legeak ezarritakoak izan daitezke.

Bosgarrena.- Eskabideak aurkeztea.

Eskaerak, meritu lehiaketan parte hartzeko eskatuz, eredu ofizial eta normalizatuan egin behar dira. Eredu hori oinarri hauen III Eranskinean dator . Ibarra udaleko Erregistro orokorrean eskuratu ahalko dira goizeko 8,00etatik 13:30ak arte, astelehenetik ostiralera eta baita eskura daiteke udaleko web orian ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus))

Ibarra udaleko alkate-lehendakariari zuzendu behar zaizkio eta Lehiaketan parte hartzeko eskabideek baldintza hauek bete behar dituzte onartuak izateko:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- a) Hirugarren oinarrian jasotzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu beharko dute, betiere, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan izanda.
- b) Behar bezala betetako eskabidearekin batera aurkeztu behar dira NANaren fotokopia eta agirien fotokopiak, deialdi honetako bigarren oinarriko baldintzak betetzen direla egiaztatzen dutenak.

Baita ere, lehiaketaldian baloratzekoak diren merezimenduei buruzko datuak, behar bezala egiaztatuta, azaldu beharko dira eskaeran. Instantzian azaltzen eta egiaztatzen ez direnak ez dira balorazioan sartuko eta baloratzeko ezinbesteko baldintza izango da ondorengo agiri guztiak eta bakoitza ekartzea.

Lanbide-eskarmentua:

- Zerbitzuak prestatu diren Administrazioaren ziurtagiri bidez, ondorengo zehaztasunak ziurtatuz: Denboraldia, maila, lan egindako arloa, betetako eginkizunak eta lanaldiaren ehunekoa.
- Lan-bizitza, GSEIk (INSS) emana.
- Lan-kontratuak, hurrenez hurreneko luzapenak edota kontratu-aldaketak baldin baleude.
- Funtzionario-izendapenak.

Eskabidean zehaztu eta egiaztatu diren merituak soilik hartuko dira kontuan.

d) Eskabideak aurkeztea

Eskabideak behar bezala Beteta Ibarra udaltxeko Erregistro eta Informazio bulegoan aurkeztu beharko dira, 20 egun naturaleko epean aurkeztu behar dira, deialdiaren iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Erregistro eta Informazio bulegoan aurkeztuko dira eskabideak edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1995 Legearen 16. artikuluan ezarritako eran.

Postetxeko bulegoetan aurkeztutako eskabideak, epea amaitu baino lehen entregatuko dira irekita doan gutun azalean, Postetxeko funtzionarioak zigilatu eta eguna jartzeko. Horrela bakarrik ulertuko da sarrera izan zutela Postetxean aurkeztu ziren egunean.

Egitatezko errakuntzak daudela konturatuz gero, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Seigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izangaien izaera pertsonaleko datuak fitxategi batean sartuko dira hautaketa prozesua egoki kudeatze aldera. Fitxategi hori udalak kudeatuko du. Izangaiek eskubidea izango dute datuetara sartu, horiek ezeztatu, aurkaratu edo zuzentzeko.

Datuen trataera abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak, Izaera Pertsonaleko DATuei buruzkoak ezarritakoaren arabera egingo da, eta baita datu pertsonalak dituzten segurtasuneko fitxategien araudiak, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Hizkuntz eskakizunei buruzko datuak IVAPeri emango zaizkio, alegatu diren hizkuntz eskakizunei buruzko datuak egiaztatzeko erregistroan, eta hautaketa prozesuko egiaztatze probak egoki prestatzeko.

Zazpigarrena.-Izangaien onarpena.

Eskaerak aurkezteko epea amaiturik, Alkate jaunak, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du, baztertuak izan direnen kasuan, zergatik izan diren baztertuak adieraziz; Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta Udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus)) erakutsiko dena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamar laneguneko epean, izangaiak erreklamazioak egin ditzake eta behar diren kasuetan akatsak zuzendu ahal izango dira.

Aurkeztutako erreklamazioak, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda behin betiko onartzen duen ebazpenean onartuak edo baztertuak izango dira. Zerrenda hori aurreko atalen adierazitakoaren arabera emango da aditzera, eta bertan gainera, lehenengo probak egiteko data, ordua eta lekua ere adierazi egingo dira.

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpenak Ibarra udaleko iragarki taularen bidez egingo dira eta baita Ibarra udaleko web orrian ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus))

Zortzigarrena.-Epaimahai kalifikatzailea.

Prozesu bakoitza baloratzeko eratzten den epaimahai kalifikatzaileak ondorengoak izango ditu: Epaimahaiburua, idazkaria eta probak kalifikatuko dituzten kideak. Horien izendapena GAOn emango da argitara eta udaleko iragarki taulan nahiz web orrian ([www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus)). Kide horien artean Euskal herriko Polizia akademiko kide bat egongo da.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek Epaimahai kalifikatzailean parte hartuko du Hizkuntz Eskakizunak egiaztatzeko probak egiten eta ebaluatzen soilik.

Epaimahai kalifikatzaileak, egoki irizten dion probetan, arlo horietako aholkularien laguntza esak dezake.

Epaimahaia hautapen organo bezala kolegiatua izango da eta bere osaketa kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioekin bat etorriko da. Teknikariek eta epaimahaikideek deitutako



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

plazetara iristeko eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademikoa izan beharko dute. Halaber, errespetatuko da berezitasun printzipioa; horren arabera, kideen erdiak, gutxienez, izan behar du sartzeko eskatzen den jakintza eremuari dagokion titulazioa.

Trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango da hautaketa epaimahaietan, salbu eta hori egokia ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ordezkariak orekatua egongo da sexu bakoitzak, gutxienez, %40ko ordezkariak duenean.

Beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu epaimahaiburuak bermatzeko Epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren oposizio aldiko idatzizko probak izangaien izenak jakin gabe zuzenduko direla.

Arau hauek aplikatzean sortzen den zalantza oro Epaimahaiak erabakiko du, oposizio-lehiaketa behar bezala gauzatu dadin eta beharrezko akordioak hartuz, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

Lehendakariaren kalitate botoak erabakiko du berdinketa izanez gero.

Onartu eta baztertuen zerrendarekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezkarien izenen zerrenda.

Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, epaimahaikideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezkari, bertan ez badira; gainera ezinbestekoa da mahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 legeak, 23 eta 24 art.etan . xedatutako kasuetan, epaimahaikideek ezin izango dute parte hartu, eta horren berri eman beharko diote deialdia egin duen agintariari. Gainera, izangaiek errefusatu egin ahal izango dituzte.

Lehiakideren batek deialdian ezarritako betebeharretakoren bat betetzen ez duela jakiten badu Epaimahaiak hautaketa prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposatu beharko dio hartarako eskumena duen organoari, izangaiek egindako okerren nahiz faltsutasunen berri emanik, betiere alde aurretik interesatuari entzun ondoren.

Epaimahaiak bertako edozein kidek hala eskatu duela eta, prozesuaren edozein aldiri dagokion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du hautaketa prozesuko edozein unetan.

Epaimahaiaren jarduera nahiz argitalpenak direla-eta egindako alegazioak idatziz aurkeztu beharko dira Herritarren Harrera Bulegoan edo epaimahaiko idazkariari helarazi, modu ofizialean erregistra ditzan.

Epaimahaiaren akordioak Ibarra Udaltxeko iragarki taulan eta Udalaren Web orrian iragarriko dira.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Lehendakaria: idazkaria, kontu-hartzailea edo idazkari-kontu-hartzailea edo beste udal bateko administrazio orokorreko teknikoa

Epaimahaikideak:

- Arkauteko Akademiako Teknikari bat.
- HAEEko ordezkari bat euskara proba egiteko.
- Beste udalen bateko hiru udaltzainburu.

Idazkaria: Udaletxeko Giza Baliabideetako teknikaria.

Bederatzigarrena.- Ariketen nondik-norakoa.

Aurkeztutako lehiakide kopurua eta hautaketa prozeduraren zailtasuna dela eta, Epaimahaiak erabakiko du zer egin lehenengo, oposizioa edo lehiaketa.

Deialdi bakarra egingo zaie lehiakideei ariketa bakoitzerako.

Epaimahaiak jarritako toki, egun eta orduan edozein ariketa egitera agertzen ez diren oposiziogileak, nahiz eta ezinbesteko arrazoiak izan, oposizioko hautespen prozesutik kanpo geldituko dira. Arau bera aplikatuko zaie probak hasita daudenean etortzen diren oposiziogileei.

Nortasun agiria edo pasaportearen eraman beharko dute izangaiak proba saioetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango diete epaimahaikideek ziurtagiri hori.

Azterketara onartuen behin betiko zerrendan ageri diren izangaiak ez ezik, aurkeztu ahal izango dira baztertutzat jo, baina, erabaki gabeko gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dutela egiaztatzen dutenak ere.

Lehiakide guztiek batera egiterik ez duten ariketetan, honela jokatu da: Epaimahaiak zozketaz erabakitzen duen letraz hasten den abizenduna izango da hasten lehena.

Lehen proba non, noiz eta zer ordutan egin Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, proba hori egin baino gutxienez 7 egun lehenago.

Hurrengo proba saioetara dei egiteko iragarki gutxienez ere hurrengo saioa baino 3 lanegun lehenago jarriko dira. Dena den, hautaketa probetarako deialdi egutegiak argitaratu ahal izango dituzte epaimahaiak.

Epaimahai kalifikatzaileak oinarri hauetan ezarritako proben ordena alda dezake, edota proba desberdin batzuk egun berean egitea ere erabaki dezake. Kasu horretan, proba bakoitza ebalua-



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

tzeko, aurrekoa gaindituta izan beharko da.

Hamargarrena.- Hautaketa prozesua.

Txanda irekiko oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira izangaiak.

10.1. Lehiaketaldia.

a) Lan eskarmentuaren balorazioa.

Eskarmentua baloratuko da hileko 0,40 punturekin, gehienez ere 10 puntu arte, Administrazio Publikoan udaltzain agente bezala egindako lanak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretiko aldiak baino ez dira baloratuko, eta dedikazioaren proportzioan.

b) Prestakuntza osagarria:

Gehienez ere 3 puntuekin baloratuko dira lanpostuaren eginkizunekin zerikusi zuzena duten prestakuntza ikastaroak:

— 20 eta 50 ordu artekoak: puntu 1.

— 51 eta 100 ordu artekoak: 2 puntu.

— 101 ordutik gorakoak: 3 puntu.

Atal honetan gehienez 3 puntu lortu ahal izagno dira, izangaiak ikastaroen orduak egiaztatu beharko dituztelarik.

Soilik Administrazio publikoek antolatu eta homologaturiko ikastaroak et ajardunaldiak baloratuko dira, baldin eta azken 10 urteetan izan badira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.

c) Informatika: Gehienez 2 puntu. Horrela baloratuko da:

IT txartela izatea modulo hauetan:

-Microsoft Word oinarrikoa (Word 97 edo ondorengo bertsioan) puntu 1

-Microsoft Excel Oinarrikoa (Word 97 edo ondorengo bertsioan) puntu 1



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Baldin eta espezialitate bereko IT txartelak egiaztatzen badira, bertsio desberdinetan, bat bakarrik hartuko da kontuan.

## 10.2 Oposizioaldia.

### 1. Proba fisikoak; nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

Izangaiek egin beharko dituzte Eranskinean deskribatutako proba fisikoak, eta baloratuko dira aipatu Eranskinean ezarritako moduan; gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira. Proba gainditzeko, ariketa guztien artean 10 puntu atera behar dira gutxienez. Ez da beharrezkoa izango proba bakoitza gainditzea.

Proba fisikoak egiteko, izangaiek egoki den kirol arropaz hornituta agertu behar dute.

### 2. Proba teorikoak; nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

Idatziz erantzutea, Epaimahaiak jarritako denboraren barruan, test modura egindako galdera sorta bati, I eta II Eranskinetako gai zerrendetako gaiei buruz. Gehienez 20 punturekin baloratuko da, eta prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten izangaiek.

### 3. Proba praktikoa; nahitaezkoa eta baztertzaila.

Idatziz ebatzi beharko dira Epaimahaiak jarritako kasu praktikoa, deialdiko lanpostuaren eginkizunen gainean. Gehienez 40 punturekin baloratuko da, eta prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten izangaiek.

### 4. Udalerriaren gaineko ezagupenak neurtzeko proba. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Oposiziogileei plano bat jarriko zaie eskura, han kokatzeko ematen zaizkien pasealeku, kale, eraikin, etab. Gehienez 10 punturekin baloratuko da, eta prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten izangaiek.

### 5. Euskara. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

### 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da, Epaimahaiak zehazten duen eran.

Azterketa HAEEK proposatutako egun eta tokian egingo da.

Proba hori Gai edo Ez Gai kalifikatuko da, eta gaitasun deklarazioa behar izango da proba gainditzeko.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Salbuetsita geratuko dira proba egitetik HAEEK emandako 2. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea dutela egiaztatzen duten izangaiak, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak (azaroaren 15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak (apirilaren 16ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) jasotakoaren arabera.

6. Proba psikoteknikoak eta nortasunezkoak, eta elkarrizketa. Nahitaezkoak eta baztertzailleak.

Gaitasun intelektualak neurtzeko testa egin beharko dute izangaiak, honako aldagai hauek ebaluatzeko: Inteligentzia, ulermen eta arreta gaitasuna, ahazkotasun gaitasuna, arrazonatze abstraktua, etab. Horien bidez ebaluatuko dira izangaien aldagai potentzialak agente kategorian eginkizunak betetzeko, eta izangaien gaitasun tekniko-profesionala eta egokitzapena lanpostuaren eginkizun orokor eta espezifikotara. Proba hori osatuko da elkarrizketa pertsonal batekin eta/edo talde dinamikarekin.

Test psikoteknikoa gehienez 10 punturekin baloratuko da, eta prozesutik kanpo geratuko dira - gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten izangaiak. Era berean, elkarrizketa -nahitaezkoa eta baztertzaillea- gehienez 10 punturekin baloratuko da, eta prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Hamaikagarrena.- Emaizak argitaratzea.

Proba bakoitzaren emaitzak argitaratu eta gero, gutxienez 3 laneguneko epea eskainiko da azterketak berraztertzeko; gero, berriz, 2 laneguneko epea, erreklamazioak aurkezteko. Epaimahaiburuari zuzendu beharko zaizkio erreklamazioak, idatziz, eta Herritarren Harrera Bulegoan aurkeztu, edo, epaimahaiko idazkariari helarazi, modu ofizialean erregistra ditzan.

Hamabigarrena.- Izendatzeko proposamena.

Epaimahaiak izendatzeko proposamena egingo du eta ezingo du inolaz ere deialdiko lanpostuak baino izangai gehiago proposatu.

Azken puntuazioetan berdinketarik gertatzen bada, oposizioaldian punturik gehien lortu duen izangai proposatuko da; hor ere berdinketak berean jarraitzen badu, proba praktikoan eta teorikoan lorturiko puntuazioa hartuko da kontuan, hurrenkera horretan.

Hala ere, berdinketak bere horretan jarraitzen badu, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo - batzuetako kide denean.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Hamahirugarrena.- Agirien aurkezpena eta mediku azterketa.

Gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik 15 eguneko epean, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiak agiriak aurkezten ez baditu edo eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezin izango da izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduera oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak eman izanagatik erantzukizunak eskatzea.

Kasu horretan, behin betiko sailkapen hurrenkerako lehen tasunari jarraituz, bertan behera utzi-takoaren lekua hartuko du deitutako lanpostu kopuruan sartzen den izangaiak, eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

Funtzionario publiko izaera dutenek ez dituzte agiriz egiaztatu beharko aurreko izendapena eskuratzeko frogatu zituzten baldintzak eta betebeharrak, menpe daudeneko Ministeritza, Korporazio Lokal edo Erakunde Publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute beren izaera eta zerbitzu-orrian agertzen diren gorabehera guztiak kreditatuz.

Izangaien mediku-azterketa eta altuera-neurketa. Gutxieneko altuera 1,65 m izango da gizonezkoentzat eta 1,60 m emakumezkoentzat, eta azterketa hori horretarako izendatuko den medikuak egingo du. Bazterketari dagokionez, otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuak aldatutako, uztailaren 19ko, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Poliziaren hautespene- eta prestakuntza-araudia dakarren 315/1994 Dekretuan ezarritakoa hartuko da kontuan.

Hamalagarrena.- Prestakuntza ikastaroa.

Prestakuntza-ikastaroa barnetegi modura gauzatuko da Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Poliziaren Ikastegian, aurrez finkatutako egitarau eta planaren arabera.

Prestakuntza-ikastaroaren ebaluazioa eta gainditzea, Oinarrizko Ikastaroko Ikasketa-planaren arabera egingo da eta ez-gaitzat jo eta hautaketa-prozesutik kanpo geldituko dira, bertan ezarritako eran ikasgaiak eta arloak gainditzen ez dituzten ikasleak.

Prestakuntza-ikastaldiaren kalifikazioa Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Poliziaren Ikastegiko iragarki-taulan argitaratuko da, eta era berean, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Poliziaren Ikastegiko Zuzendaritzak Tolosako Udalarari jakinaraziko dio.

Hamabosgarrena.- . Izendapena eta praktikaldia.

Prestakuntza ikastaroa gainditzen duten izangaiak 6 hilabeteko praktikaldia egingo dute, beren jarduera-esparruen arabera izangaiaren osotasunezko prestakuntza lortzeko nahiz Tolosako Udaltzaingoaren egitura eta funtzionamendua bereziki ezagutzeko egokienak diren guneko edo zentroetan. Praktiketako epealdia luzatu egingo da, prestakuntza ikastaroa hasi ez den kasuan.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Praktikaldia bukatu aurretik eta karrerako funtzionarioa izendatu ahal izateko, lehenetsua duten ibilgailuak gidatzeko gidabaimena (B + E) eta A2 gidabaimena eduki beharko ditu praktikaldia gainditzeaz gain; gidabaimen horiek aipatutako unean aurkezten ez baditu, praktiketako funtzionarioaren izendapena bertan behera geratuko da.

